

## Donostiako Musika Hamabostaldia 2018 Balantzea

### **Musika Hamabostaldiaren 79. edizioko 6 emanalditan aretoa erabat bete zen, eta % 91koa izan zen okupazioa Kursaal Auditorioan**

- 6 alditan bete zen Kursaal Auditorioa, ondoko saio hauetan: “Kreazioa” (abuztuak 2 eta 3), Rotterdams Philharmonisch Orkest (abuztuak 24), Budapest Festival Orchestra eta Donostiako Orfeoia (abuztuak 27), “Amoria” (abuztuak 29), eta Koloniako WDR Sinfonieorchester eta Donostiako Orfeoia (irailak 1).
- Ekoizpen propioaren aldeko apustua indartu zen: Hamabostaldiak elkarlanean ekoitzi zuen “Italiarra Aljerren”, Haurren Egunean “Itsasotik eskolara” ikuskaria estreinatu zen, eta “Adio” bultzatu zuen, Kukaik Arantzazurako prestaturiko muntaketa, besteren artean.
- Ostera ere frogatu zen Hamabostaldia topaketa-puntu garrantzitsua dela, hartan elkartzen baitira hemengo erakunde kulturalak nazioarteko orkestra eta interpretariekin, eta proiektu berriak gauzatzen dituzte: horixe egin zuek Easo Eskolaniak Katia eta Marielle Labèqueren “Amoria” saioan.

**Donostiako Musika Hamabostaldiak** azken kontzertu sinfonikoarekin itxi zuen bere 79. edizioa, Koloniako WDR Sinfonieorchester taldearen eskutik; orkestra honen bigarrena izan zen edizio honetan. Alemaniar orkestrak **Berliozen “Requiema” interpretatu zuen, Donostiako Orfeoia eta Maximilian Schmitt** tenorrek lagundurik, **Jukka-Pekka Saraste** zuzendariaren gidaritzapean. Kontzertu honekin amaitu zen beste urte batez, kontzertu eta jarduera paraleloen artean, 90 proposamen gainditu zituen edizio bat.

**Kursaal Auditorioa** izan da, baita edizio honetan ere, Musika Hamabostaldiaren espazio nagusietako bat. Auditorioa **6 bider bete zen osorik, eta okupazioaren % 91ra** heldu zen. **Lehiatilan bildutako kopurua**, guztira, **952.000 euro gordinekoa** izan zen. Ikusleen kopuruari dagokionez, **37.000 lagun inguruk** gozatu zuten 79. edizio honetako proposamenez.

Auditorioan antolaturiko proposamenen artean, aipagarria da La Fura dels Baus taldearen “**Kreazioa**” obraren bi emanaldiek eskuraturiko arrakasta (abuztuak 2 eta 3), sarrera guztiak agorturik zeudela inauguratu baitzen jaialdiaren edizioa. Era berean, osorik bete ziren **Rotterdams Philharmonisch Orkest** taldearen kontzertua (abuztuak 24), **Budapest Festival Orchestra eta Donostiako Orfeoia** eskainitakoa (abuztuak 27) eta “**Amoria**” saioa, Katia eta Marielle Labèque pianisten azken proiektua, euskal musikaren 500 urte korrituz euskal musikarien talde zabal bat bildu duena bikotearen inguruan. 79 edizioa itxi zuen **Koloniako WDR Sinfonieorchester eta Donostiako Orfeoia**ren kontzertuan ere sarrerak agortu ziren.

Edizio honetako antzezpenerako bigarren proposamenak Rossiniren titulu bat berreskuratu zuen haren heriotzaren 150. urteurrenean: abuztuaren 11n eta 13an, Musika Hamabostaldiak **“Italiarra Aljerren”** aurkeztu zuen, Hamabostaldiaren beraren, Buenos Airesko Colón Antzokiaren eta El Escorialeko San Lorenzoren Udako Jaialdiaren koprodukzioan. Joan Anton Rechiren bertsio berriak 40etako hamarkadara eramán zuen ekintza, eta antzezpenaren barruko antzezpen moduko bat aurkeztu zuen, errebista-ukituekin.

**Kursaal Auditorioa**, era berean, topaketen, ospakizunen eta oroitzapenerako uneen lekua izan zen. Abuztuaren 18an, larunbatez, **Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Andra Mari Abesbatzak** zabaldu zuten edizio honetako ziklo sinfonikoa, **Christian Zacharias** maisuaren zuzendaritzapean. Zacharias maiz etortzen da Hamabostaldira, eta pianista eta zuzendari gisa itzuli da oraingo honetan. Abuztuaren 22an, **Hamburgoko NDR Elbphilharmonie Orchester** itzuli zen Donostiara, hogeita hamabost urte igarota jaialdian egindako emanaldi lehen eta bakarretik; **Krzysztof Urbanski** bere zuzendari gonbidatu nagusiaren gidaritzapean, txunditua utzi zuen jendea kontzertuaren amaieran “Agur Jaunak” interpretatuz. **Rotterdams Philharmonisch Orkest** (abuztuak 24), **Yannick Nezet-Seguín** bere zuzendari titularrarekin, zeinak agurtu baitzuen azken hamar urteotan bere orkestra izan dena, Hamabostaldiko publikoarekin topo egin zuen berriz, bere mendeurrena ospatzen ari zen orkestraren nazioarteko itzuliaren testuinguruan; Hamabostaldiak ere parte hartu nahi izan zuen ospakizunean, eta, hala, Easo Eskolaniak “Zorionak zuri” eta haren nederlanderazko baliokidea interpretatu zituen. **Budapest Festival Orchestra** ere ohiko orkestra da Hamabostaldian, eta hamar urtean bosgarren aldiz etorri da aurten. Bi kontzertu eskaini ditu, abuztuaren 27an eta 29an; aurrenekoan, zuzendariak, **Ivan Fischer** maisuak, Brahmsen “4. hungariar dantza”ren jatorrizko bertsioa eskaini zuen, eta orkestrako musikariek abestu egin zuten. **“Amoria”** ikuskaria euskal musikaren bilduma arrakastatsu bat izan zen, eta Labèque ahizpak eta hainbat euskal musikari bildu zituen agertokian, besteren artean Carlos Mena kontratenorra, Hegiak taldea eta Easo Eskolania; pianistek abesbatza honekin bideratutako proiektua 2016an Sir John Eliot Gardinerren taldearekin egindako lanetik zetorren: Katia Labèquek kontatu zuenez “Amoria”ren aurkezpenean, Easo Eskolaniaz mintzatu omen zitzaion Gardiner, “munduko haur-abetesbatzarik hoberena” (baita), britainiar zuzendariaren esanetan. Pasadizo horrek argi berresten du nolako garrantzia duen Hamabostaldiak hemengo abesbatzen eta nazioarteko artisten arteko topaleku gisa.

Edizio honetan hiru hitzordu guztiz desberdinak ikusi ahal izan dira **Victoria Eugenia Antzokian**: **Alexandre Tharaud** pianista frantsesak eskaini zuen errezital bat, Couperin, Debussy eta Satieren obreakin (abuztuak 6); **“Elkarrizketa zeltikoak”** kontzertua, zeinean **Jordi Savallek eta Carlos Núñezek** Eskozia, Irlanda, Euskadi eta Galiziako musika tradizionalaren sustriak landu baitzituzten (abuztuak 20); eta **Hervé Koubiren Dantza Konpainiaren “Les nuits barbares”** dantza-ikuskaria: Mediterraneoaren inguruan mendeetan zehar bizi izan diren kulturen bateratze-ariketa bat (abuztuak 28). Bai “Elkarrizketa zeltikoak”, bai “Les nuits barbares”, bi saioek izan zuten oso harrera ona, sarrerak bi kontzertutan agortu baitziren.

Kursaal Auditorioan eta Victoria Eugenia Antzokian antolaturiko hitzorduez gainera, interes handia sorrarazi zuten publikoarengan Hamabostaldiaren musika-eskaintza osatzen duten beste zikloek. **Organo Zikloak**, esate baterako, 4.720 ikusle bildu zituen guztira Donostian eta Gipuzkoako zenbait lekutan egindako 13 kontzertutan. Landu zen erreperitorioari dagokionez, bereziki aipagarriak izan ziren Youri Boutsco-ren “Organoko bigarren koaderno handia”, Josep Solerren “22. korala. Esquin eskuko tentu zatitua” eta Jesús Guridiren “Hamar Euskal Melodia” obren transkripzioaren erabateko estreinaldiak; Juan de la Rubiari eskatu zion transkripzio hori Musika Hamabostaldia. Bai obren eskariek, bai estreinaldien politikak, jaialdiak sorkuntza berriaren bultzatzailea eta plataforma izateko duen interesa berretsi zuten. Azpimarratu behar da, era berean, Organo Erromantikoko Nazioarteko Ikastaroaren arrakasta; aurten 35. edizioa izan da, eta urtetik urtera, eskariak gainditu egiten du plazen eskaintza, Gipuzkoako organo-ondare aberatsak mundu osoko organisten artean sortzen duen interesari esker.

**Antzinako Musika Zikloa** Santa Teresa Komentuan ospatzen da 1991az gero, eta aurten okupazioaren % 9ra heldu da. Komentuko eliza mantentzen laguntzeko izan da ziklo honetan dohaintzen bidez bildu den dirua, era horretan erantzuna emanaz Hamabostaldiaren alderdirik sozialenari. Bestalde, Hamabostaldi Berdea izenpean jasotako jaialdiaren ingurumen-politikaren baitan, Bosquia elkartearekin elkarlanean, zuhaitzak landatuz berdindu ziren ziklo honetan sorturiko CO2 igorpenak. Erreperitorioari dagokionez, Antzinako Musika Zikloak Iberiar Penintsulako, Frantziako, Italiako eta Txekiar Errepublikako obra barrokoen eta Errenazimentukoen sorta bat eskaini zuen, eta monografiko bat eskaini zion François Couperini bere heriotzaren 350. urteurrenean.

**Ostegun Musikalak San Telmon** zikloa bigarren ediziora iritsi da aurten, eta osterara ere % 100koa izan da okupazioa. Ziklo honekin sendotu egiten da ganberako musikaren eskaintza, aurten hiru kontzertuk eratu dutena. Kontzertuak klaustroko museoan eskaini dira, The Brahms Project, Judith Jáuregui pianista eta Lina Tur Bonet biolinista, hala nola Clara Mouriz mezzosopranoa aurkeztuz. Musika Hamabostaldiaren eta San Telmo Museoaren arteko elkarlana harantzago doa ordea, eta aurten elkarlan hori gauzatu da, batetik, Jordi Savallekiko topaketa batean, zeina publikoari irekia baitzen eta museoan egin zen, eta, bestetik, Mikel Chamizoren ardurapean egin zen musika klasikoko saioan San Telmo Gauda izenekoan. Horrez gainera, “Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak” aldi bateko erakusketaren gaia zeharka agertu zen Hamabostaldiaren programazioan.

Edizio honetan estreinaturiko hiru obrek argi frogatu dute **Musika Garaikideko Zikloak** sorkuntza berritzaileenari laguntzen diola. Honako hauek izan dira: Mario Ruizen “Aus del Dämmerung”, Cuarteto Gerhard taldearen kontzertuan eskaini zena, Raquel García-Tomásen “Così mostraste a lei i vivi ardori miei”, eta Mikel Urquizarren “Cinco sólidos perfectos y una mariposa”, Cosmos Quartetek eta Noelia Rodilesek aurkeztuak biak.

Eskaintza publiko berriengana hurbiltzea da Musika Hamabostaldiaren erronka handienetako bat. Zentzu horretan, azken edizioetan pisu handiagoa eskuratu du **haurrei** zuzendutako egitarauak. Aurten, ahalegin hori saritua gertatu da, txikienei eskainitako hitzordu askotan aretoa osorik bete baita. Halaxe gertatu zen **“Itsasotik eskolara”** ikuskarian, zeina abuztuaren 21ean estreinatu baitzen Victoria Eugenia

Antzokian Haurren Egunaren egitarauaren baitan. Musika Hamabostaldiak produkturiko proiektu bat zen, haurrek garatua eta haurrentzat, Easo Abesbatzaren haurren eta gazteen abestaldeak zuzentzen dituen Gorka Mirandaren ideia baten gainean. Proposamen artistiko hau Emaús Fundación Social-ekin elkarlanean bideratu zen, Hamabostaldi Berdearen ildo beretik, eta iraunkortasuna, bizikidetzeta, gizarte-kontzientzia eta ingurumenaren errespetua bezalako balioak sustatzea zen helburua. Horretarako, ikuskariaren sorkuntza-prozesu osoan parte hartu zuten Easo Abesbatzako neska-mutilek, osorik elementu birziklatuetan oinarritzen zen eszenografiatik hasita, eta interpretazioraino.

“**Kantu Kontari**”, formatu txikiko ikuskaria, ipuin-kontalari batek zuzeneko laguntza musikalaz eskainia, abuztuko larunbatetan heldu zen Kursaalera, lau proposamenekin; eta bere bertsio ibiltarian, Zumaia, Getaria, Mutriku, Irun eta Ordizira joan zen. Haurrentzako egitarauan ikuskari elkarreragile bat izan zen gainera, Neonymusen “**Historia inventada de la música inventada**”, eta “**Materia**” lantegia, Maushausek Juan Luis Goenagaren obraren inguruan diseinatua, hura izan baitzen Hamabostaldiko 79. edizioko kartelaren egilea.

**Interprete Gazteen Zikloak** beren ibilbide profesionalari heltzen dioten musikarientzako erakusleho-eginkizuna bete du berriz ere aurten. Abuztuaren 20tik 24ra, Musikenerekin elkarlanean, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko ikasleek Hamabostaldiko publikoaren aurrean aurkezteko aukera izan zuten Miramar Jauregian eta Musikeneko auditorioan egindako lau kontzertutan. Era berean, protagonistak izan ziren **Musikeler** saileko bi hitzorduetan, aurten egoitza estreinatu duen –Convent Gardenen goiko terraza– publiko gaztearentzako Hamabostaldiaren proposamenean.

**Musika aitzaki**, Musika Hamabostaldiaren ziklo “bidaiaria”, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Lapurdin barna ibili zen. Ziklo honen testuinguruan egin ziren hemezortzi kontzertuetatik, azpimarratu behar da Jordi Savallek Senpereko Jondoni Petri elizan eskainitako kontzertuak izan zuen arrakasta, baita Ordizian, hiriarren 750. urteurrena zela-eta, eskaini ziren kontzertuena ere. Horrez gainera, Arantzazuko Santutegiko basilika, zeina ziklo honetako agertoki garrantzitsuenetako bat baita, osterara ere osorik bete zen “Adio” ikuskariaren estreinaldiarekin; ikuskari hori Kukai Dantza taldeak, Musika Hamabostaldiaren eskariz, berriaz diseinatu zuen espazio horretarako, eta, hala, garaikidetasuna eta tradizioa adostu ziren musikaren eta dantzaren bitartez.

**ConversanDO** publiko berriak erakartzeko Hamabostaldiaren beste ekimen bat da, eta sail honek ere sendotu du bere presentzia jaialdiaren egitarauan. Jarduera aitzindari hau inoiz kontzertu batera joan ez diren pertsoneri dago zuzendua, eta kontzertu bat Kursaal adituta, ondoren esperientzia topaketa informal batean partekatzean datza. Urteik urtera jende gehiagorengana iristen da, gazte nahiz helduengana.

(2018ko azaroak 5)